

Durango aurrekoak

Aurkezpenak oso ekitaldi tristeak dira. Errutinan sartu gara. Gauza praktikoa da aurkezpena hedabideentzat, erraz samar betetzen ahal delako kulturako espazioa transkripzio batzuekin eta argazki handi batekin. Baina izugarri mingarria da idazlearentzat, eta batere serioa ez irakurlearentzat; ez liburu irakurlearentzat eta ez egunkari irakurlearentzat. Idazlea Konstituzio Plazako arkupeetan edo KMn azaltzea, liburua eskuan duela promozio lanetan, promozionatu behar delako, baina ez nabarmenegi, eta betiko itxurak egin, liburu oso ona dela esan, hitz batzuk, Xabier Olarrak ‘liburu aupamenak’ bota zuen lehenengoan... hori dena errutina da. Kazetariak ez dute galderarik egingo, ordu erdira beste prentsaurreko batera joan behar dutelako... Azkenean, ekitaldi anti-literarioa da zeharo, liburu aurkezpena. Doako publizitatea, besterik ez”.


Eta eman dezagun Gasteiztik Donostiara hain zuzen ere liburu aurkezpena egitera doan idazleak Koldo Izagirrearen hitzok oroitu dituela eta, handik gutxira, Altsasu iragan berritan, Paris 857 bide seinalea ikusi duela, eta sentitu duela Donostiatik aurrera egiteko gogo, Parisera (edo hibernatzekoa bestela, azken egun eta asteotako eguraldi –eta gertakari– gorriaren eraginez; aurten desira hori bizi-bizi sentitzen ari da). Nekatua doa idazlea liburu berria alboko eserlekuan ikusten duela: zenbat buruhauste, zenbat atzera-aurrera, zenbat zalantza, zenbat zuzenketa, zenbat insegurtasun... Barrena goibel eta mingulin duela, Izagirrearen hitzez oroitu da berriro ere: “Irudipena daukat argialetxeak akomodatu egin direla eta ez dutela berririk asmatu joan deneko hamabost, hogeit hamar urte honetan”.



ZALDI EROA



Nekatua doa idazlea... Barrena goibel eta mingulin duela, Izagirrearen hitzez oroitu da berriro ere: “Irudipena daukat argialetxeak akomodatu egin direla eta ez dutela berririk asmatu joan deneko hamabost, hogeit hamar urte honetan”



irudia:

Antton Olariaga

Idazlea, konturatu gabe Pariserako bidea bazter utzi eta Donostiarakoan doalarik, Kirmen Uribez oroitu da: “Liburuja jaiola da, baina lehenengo urrats horietan, ibiltzen lagundu behar zaio”; eta hurrena Karlos Linazasoro etorri zaio gogora, behin batez aurkezpen mahai beretik jaultikato gogoetarekin: “Nik, zera, egia esan, ez dakit zer egiten dudan hemen. Pertsonarik desegokiena naiz ni neure liburuaz hitz egiteko”.

Donostian jadanik, Boulevard-eko aparkalekuan sartu delarik, idazlea bere burua konbentzitu nahian dabil: apustu egin nahi du liburu bakoitzarekin, baina baita aurkezpen kontuekin ere. Eta autotik irten bezain laster Salinger idazleaz oroitu da, Salinger desagertua, Salinger misteriozua, elkarrizketa edo aurkezpenik egiten ez zuena. Eta Izagirre berriro, belarria xuxurlaka: “Beharbada beranduegi da, baina zenbait jende nola dabilen ikusita, nahia-go dut atzera egin eta promozio karrera horretatik apartatu. Ez dut *mediatic people* izan nahi. Nire nekadura dut aurkezpenak ez egiteko arrazoietako bat. Beste arrazoi bat, nabarmenkeriaren kontrako jarrera. Hirugarren bat, aurkezpen sistemaren higadura. Zerbait berria asmatu beharra dago, asmatu beharra daukate argialetxeek, liburuaren promozioa egiteko. Protesta moduan ere egin dut, liburuja ez aurkeztea”.

Konstituzio Plazara bidean, liburuari lagun egiten dioten –liburuaren lagun diren– hainbat adiskide etorri zaizkio idazleari gogora: kazetariak, liburu saltzaileak, bibliotekariak –zenbat ahalegin ezkutu, zenbat katalogo txukun haien esker, zenbat klub–... Eta haien alde topa egin du topatu duen lehen tabernan botila bat txakolin eskatzearekin batera. Patata tortila ere eskatu du, piper gorri batekin. Amaitzen duelarik erabakiko du, joan, ez joan. ■